



Jakinarazten dizut Alkateak, 2023ko martxoaren 9an honako Dekretu hau eman duela:

“2023ko otsailaren 17an onartu ziren Bergarako Erramu Zapatuko ferian talo txosna jartzeko gune baten adjudikazioa arautuko zuten oinarriak.

Jaso diren eskatzaileak eta aurkeztea falta zaien dokumentazioa honakoa da:

Enpresa/Pertsona	Falta diren agiriak
Ekotalo	Ogasuneko agiria eta jarduera ekonomikoaren agiria
Lezamakoetxeko taloak	Eskaera dokumentua eta Osasun erregistro-zenbakia edo osasun baimena falta
Mieltxo taloak	Osasun erregistro-zenbakia edo osasun baimena
Ataungo Talogileen Elkarteak	Gizarte Segurantza eta Ogasunaren agiriak

Ikusita eskatzaile guztiei falta zaiela dokumenturen bat aurkeztea, eta kontuan izanda oso denbora gutxi geratzen dela feria egunerako eta espazioaren adjudikazioa lehen bai lehen egitea komeni dela,

ERABAKI DUT:

LEHENENGOA: 2023ko martxoaren 10ean, 12:00etan, goiko koadroan jasotako talogile guztien artean egitea zozketa, adierazita adjudikazioa behin betiko bihurtzeko 2023ko martxoaren 15a baino lehen falta zaion dokumentazioa aurkeztu beharko duela zozketan adjudikazio-hartzaile suertatu denak.

Aurkeztu ezean itxaron zerrendan lehenengo geratu den talogileari emango zaio aukera bera eta horrela hurrenez hurren adjudikazioa egin arte.

BIGARRENA: Erabaki honen berri ematea interesatu guztiei ebazpen honen jakinarazpena argitaratuta udaleko web orrian, feriarri dagokion atalean.”

Ebazpenaren aurkako bideak

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar dezakezu, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea duzu, jakinarazpen hau udaleko web orrian argitaratzen den hurrengo egunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsoren aurretik, berraztertze errekurtsoa jar dezakezu erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpen hau udaleko web orrian argitaratzen den hurrengo egunetik hasita.

Dena den, egoki deritzozun beste edozein errekurtsu ere jar dezakezu.

LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

Bergara, 2023ko martxoaren 9a

